


LAGIN ADIERAZGARRIA:

Aurtengo ekainaren hondarrean eta uztailleko lehenengo egunetan Lazkaoko jarduera ekonomikoa hobeto ezagutze aldera, azterlan bat egin dugu EHBildukook. Azterlana burutzeko, jarduera ekonomikoa hiru atal nagusitan banatu dugu: industria, ostalaritza eta merkataritza. Landa-eremua azterketa honetatik kanpo utzi dugu oraingoan, zoritxarrez, hark gure herriko jarduera ekonomikoan duen pisu espezifikoak ez delako nahi genukeen adinakoa.


Lazkaoko Udalak badu argitaratua merkataritza-gida bat 2020an eta hura ere kontuan hartu dugu gure laginak baliozkotzekoan, besteak beste. Haren arabera, hiru alor hauetako establezimendu kopurua hau da:



Geroztik, itxi eta ireki egin dira negozioak Lazkaon, baina datu zehatzagoen faltan, handik abiatu gara gure ikerlanerako.

Azterlanean jarraitutako urratsak eta metodologia segidakoa izan da: abiapuntuko hipotesi-zerrenda bat osatu genuen, haiek neurtzeko inkesta egoki bana diseinatu genuen, inkesta helarazi diegu establezimenduei atez ateko bisitak eginez, epe baten ondoren haiek jaso ditugu, jasotako datuak prozesatu, eta artikulu honetan argitaratzen ditugu ondorio nagusiak.

Hemen duzue jasotako inkesta-kopurua merkataritza-gidan zerrendatutako establezimenduen ehunekotan adierazita.



Lagina oso adierazgarria iruditzen zaigu, kasurik okerrenean negozio guztien % 36,6 jasotzera iritsi gara, ostalaritzan, eta, onenean, industriarenean, % 41,38 jasotzera. Jaso ez ditugunetatik batzuetara ez gara iritsi (ez diegu banatu inkesta); batez ere, lokal komertzialik ez duten hainbat enpresatara. Horretaz gain, inkesta jaso duten batzuek ez betetzea, adierazi digutenez, hainbeste inkesta eta galdeketarekin aspertuta egotea da. Kasuren batean, datuen konfidentziasunean ere babestu dira enpresak, gure aldetik haien diskrezioa bermatu diegun arren.

Bestalde, jaso ditugun datu batzuk alorren artean konparagarriak dira, baina ez guztiak. Lehenengo, guztiei edo gehienei eragiten dieten ondorio batzuk aurkezten dizkizuegu, eta, ondoren, alorrik alor bakoitzari dagozkionak.

ONDORIO OROKORRAK:

Jarduera ekonomikoko hiru atalei eragiten dieten ideien artean hauek nabarmendu nahi ditugu atal honetan: langileak aurkitzeko zailtasuna, emaitza-ekonomikoen bilakaera, udalarekiko harremanen kalitatea, establezimendua jabetzan ala alokatua duten (ostalaritzan eta merkataritzan bakarrik) eta, alokatuta badute, zer prezio ordaintzen duten.

Langileak aurkitzeko zailtasuna orokorra dela sarri entzuten dugu; batez ere, langile kualifikatuak aurkitzeko zailtasuna. Horregatik jakin nahi izan dugu lanpostuetatik zenbatetan behar dituzten pertsona kualifikatuak. Baina industriara mugatu zen gure jakin-mina, izan ere, ostalaritzan eta merkataritzan langileak bertan formatu behar izan dituztelakoan gaude; ez dela horietarako eskola zehatzik, alegia.

Hurrengo galdera bai izan dela orokorra, guztiei egindakoa: langileak aurkitzeko zailtasunari buruzkoa. Industrian eta ostalaritzan % 90 inguruk aitortzen dute zailtasunak dituztela; merkataritzan, berriz, datua pixka bat jaisten bada ere, adierazgarria izaten jarraitzen du, % 80,95.


Emaitza ekonomikoen bilakaera

Lehenengo datua, emaitza ekonomikoen bilakaera-datuak zenbat enpresak eman dizkiguten da. Izan ere, hau izan da (espero genuen

bezala) daturik kritikoenetakoa, dela diskrezioz gorde nahi delako, dela kalkulu zorrotzik egiten ez delako... Hori horrela, esan behar da inkesta bete duten enpresa guztiek ez dizkigutela emaitza ekonomikoaren bilakaerari buruzko datuak eman, eta, beraz, laginaren fidagarritasuna jaitsi egiten dela. Hona inkesta bete duten enpresetatik zenbatek erantzun dioten emaitza ekonomikoen atalari:


	INDUSTRIAN	OSTALARITZAN	MERKATARITZAN
Erantzunen %	% 70,83	% 41,67	% 53,66

Pandemia aurreko urtea oinarri hartuta (2019) emaitza ekonomikoen bilakaera nolakoa izan den jakin nahi izan dugu. Espero zitekeen lehenengo pandemia urtea, 2020a, galera urtea izatea, eta hala baieztatu digute jasotako datuek. Aurrerago kuantifikatu ditugu galerak zenbatekoak izan diren, baina has gaitezen zenbat enpresak jasan zituzten pandemian eta ondorengo urteetan zehaztetik. Grafikoan ikus daiteke (XXX grafikoa) enpresen erdiek baino gehiagok pairatu zituztela 2019an baino emaitza kaskarragoak. Merkataritzaren eta industriaren kasuan 2020a izan zen urterik okerrenea, eta handik aurrera jaisten hasi ziren galerak zituzten enpresak. Atentzioa ematen du ostalaritzan, urterik okerrenea ez zela izan 2020a, nonbait, 2021a baizik. Izan ere, urte horretan enpresa gehiagok izan zituzten galerak 2020an baino.



Galeren edo irabazien zenbatekoa ere datu adierazgarria iruditu zaigu emaitza ekonomikoaren bilakaera adierazteko. Beti ere, datu absoluturik ez diegu galdetu nahi izan enpresen, diskrezioz tratatu beharreko datua delakoan. Orduan, emaitza ekonomikoaren bilakaera portzentualarekin konformatu gara, alegia aurreko urtekoarekin alderatuta emaitza positiboa (irabaziak) ala negatiboa (galerak) izan den eta zein kopurutan. Grafikoak datua eman diguten enpresa guztien batez bestekoa jasotzen du.

Galeren zenbatekoa grafikoa ikus dezakegu, beraz, industrian (urdinez) 2020an Lazkaoko enpresek, batez beste, 2019an baino % 23,33 gutxiago irabazi zutela; 2021ean galeren batez bestekoa jaitsi egin zela 19ra, 2022an 32ra igo zela etab.



Ez ziren enpresa guztiak izan aurreko urtekoa baino emaitza kaskarragoak izan zituztenak: batzuek lortu zuten pandemia garaian ere emaitza positiboak izatea. Haiek ere kuantifikatu ditugu, galerak bezala.

Lokal alokatuak

Enpresen artean, ostalaritzan eta merkataritzan, alokatutako lokalak asko samar zirelako susmoa genuen, eta hori ere kuantifikatu nahi izan dugu. Datuen argitan, esan dezakegu hala dela. Hain zuzen ere, ostalaritzan, batez ere, handia da kopurua, % 83,33koa. Merkataritzan, lokalen ia erdia da alokatuta dagoena: %46,34.

Alokairu-prezioak ere jakin-mina piztu zigun. Jakinaren gainean ginen datu honek ere sor zezakeela eragozpenik, eta nahikoa beldurrez eskatu genuen. Esan behar da lokalak alokatuta dituztenen aldetik eragozpen gutxi izan dela zenbatean dituzten hartuak adierazteko. Taula honek jasotzen du beren negozioa garatzeko lokala alokairuan hartua duten enpresetatik zenbatek eman digun datua:

Alokatutako lokaletatik zenbatek eman diguten alokairuaren prezioa

OSTALARITZAN

% 70

MERKATARITZAN

% 89,47

Prezioei dagokienez, ostalaritzakoek bikoiztu egiten dituzte merkataritzakoak. Merkataritzan gehien ordaintzen duenak 1000 euro inguru ordaintzen du, eta ostalaritzan 2000. Segidako tauletan ikus daiteke prezio-talde bakoitzean zenbat establezimendu dabilzan.

OSTALARITZA	
2000	% 28,57
1250	% 14,29
1000	% 42,86
700	% 14,29

MERKATARITZA	
750-1000 euro	% 11,76
550-750 euro	% 35,29
500-550 euro	% 29,41
400-450 euro	% 23,53

Udalarekiko harremanak

Ostalaritzako eta merkataritzako enpresen % 75ek izan ditu harremanak udalarekin azken urtebetean, eta horietatik % 44, 44 ez dago konforme jaso duen tratuaarekin edo erantzunarekin. Hona zer proposatzen duten udalaren eta beren arteko harremana konpontzeko:

- Beraien gustukoak ez diren gauzak egiten utziz, batez ere, kulturalak badira.
- Komunikazioa hobetuz
- Erraztasunak emanez
- Arazoei konponbide arinagoak emanez
- Merezi duten arreta eskainiz eta gertutasuna erakutsiz
- Egindako iradokizunei erantzunez edo alternatibak eskainiz

Udal-zerbitzuekiko gogobetetzea

Merkataritzan eta ostalaritzan udalak eskaintzen dituen zerbitzuetatik zein izan litezkeen garrantzitsuak zerrenda bat osatu genuen, eta merkatariei eskatu genien batetik bostera puntuatzeko garrantziaren arabera. Hortik, zerbitzuen sailkapen bat lortu dugu. Hemen duzue:

Bono kanpainak	3,94
Hondakinen bilketa	3,69
Kultur programazio aberatsa	3,60
Lizentzien tramitazio arina	3,43
Merkataritza sustatzeko kanpainak	3,28
Irekiera eta obra laguntzak	3,09
Aholkularitza-zerbitzuak	2,94
Merkataritza-orientazioa	2,90
Sustapeneko laguntzak	2,88
Udalak kontratatzea	2,67

INDUSTRIA:

Industriako enpresen artean, jakin mina piztu zigun zer egitura juridiko zuten horiek: zenbat ziren kooperatibak, zenbat ondasun-komunitateak... Gehiengo nabarmenak SL egitura juridikoa du; gutxi batzuk dira SA edo SAL

direnak eta beste horrenbeste ondasun-komunitateak. Kooperatiba, berriz, bakarra.

Enpresek zer jarduera mota egiten duten ere jakin nahi izan dugu. Horretan, sakabanaketa handia aurkitu dugu: osagai forjatuak, gurpil industrialak, metalen tratamendua, mekanizatua... Gutxi dira jarduera errepikatzen duten enpresak. Horrela Goierriko edo inguruko enpresa traktoreek behar duten zerbitzu eta produktu osagarrien eskaintza zabala dugu herrian.

Lazkaoko enpresen % 29,17 enpresa-talde bateko kide dira, eta horietako gehienak EAE mailakoak dira (bereziki Goierrikoak); % 70 paseak dira horrelako taldeetako kide. Gainerakoak, estatu-mailako nahiz mundu osoko hedadura duten talde banatako kide dira.

Langile-kopuruari dagokionez, gehienak oso enpresa txikiak dira, batetik bost langilera dituztenak. Enpresen erdia baino gehiago dira tamaina horretakoak. Sei langiletik 20ra bitartean dituztenak enpresen laurdena dira, eta horien artean, ehuneko 20tik gora, 6tik hamarrera langile dituztenak. Gainerako laurdenak beste bi multzo nagusitan banatzen dira: 21-50 langile dituztenak eta berrogaita hamarretik gora dituztenak.

Bezero-kopuruari eta haien kokapenari ere erreparatu diogu. Izan ere, enpresa batzuek produktuan dibertsifikazioa bilatzen dute, eta beste batzuek, bezeroetan; hots, produktuak bertsuak izan arren haien erosleak gutxi batzuk izan edo asko izan, desberdin erantzun dezakete balizko krisien aurrean. Lazkaoko industriaren % 47,62ri gutxik erosten diote eta % 52,38ri askok. Hala ere, ez dirudi aparteko kezkarik dutenik gutxik erosten dieten enpresa horiek, beren bezeroak oso enpresa ahaltsuak dira eta. Hamarretik ia sei enpresak Goierriin bertan kokaturiko enpresei saltzen dizkiete beren ekoizpenak; beste laurden batek Euskal Herrian ditu bezeroak, eta, azkenik, ehuneko hamasei pasatxok Estatuan edo mundu zabalean.

Herriko enpresarik handienak dira mundu zabalean erosleak dituztenak.

Enpresaren etorkizunari begira hainbat faktore izan daitezkeela erabakigarriak eta, haiek 1etik (batere garrantzirik ez dutenak) 5era puntuatzeko eskatu diegu enpresa industrialei. Hona batez besteko emaitzekin lortu dugun sailkapena, erabakigarriena denetik behera sailkatuta. Ohartzen gara guztiak jotzen direla garrantzitsu (erdibideko 3tik gorako puntuazioa jaso dute), baina badira aldeak haien artean.

Kalitateko zerbitzua ematea	4,83
Bezeroekiko komunikazioa	4,71
Giza baliabideak	4,33
Estrategia ondo zehaztea	4,09
Zuzendaritza estrategikoa	4,05
Barne-azterketa	4,05
Berrikuntza	3,90
Kapitala	3,82
Inguruaren azterketa	3,73
Publizitatea eta sustapena	3,19

Etorkizunerako faktore erabakigarriak, garrantzitsuenetik garrantzirik eskasena duenera sailkatuta.

Amaieran aukera ireki bat utzi genien enpresei guk egindako galdeketari zerbait gehitu nahi bazioten. Hona hemen jasotako oharrik garrantzitsuenak:

- Ibabe industrialdean trafikoa hobetzea eskatzen dute: trailerrek ez dezatela maniobra arrarorik egin behar izan. Nahikoa iritzi zabaldua da industrialde batean eroso ibili behar luketela.
- Zubierreka poligonoko gune batean kexu dira estolderia-zerbitzua ez dela behar bezala ematen, ez direla haiek behar bezain garbi mantentzen, eta euri-zaparradak diren bakoitzean ura sartzen zaiela enpresetara.
- Enpresa txikien biziraupena ziurtatutako duten neurriak hartzeko eskatzen dute.
- Enpresa txikiren bat ez dago ados hondakinengatik kobratzen zaion tasarekin.

OSTALARITZA:

Ostalaritzako negozioak ematen duten zerbitzu-motaren arabera sailkatu ditugu.

Batetik, otorduak ematen dituztenak eta ez dituztenak bereiztu ditugu. Herriko tabernen erdiek, gutxi gorabehera otorduak ematen dituzte. Horietako batzuk bertan kontsumitzeko, baina, gehienek, eramateko ere prestatzen dizute jakia.

Taberna pare batek kontzertuak ere antolatzen ditu eta gaueko taberna edo pub izaera du. Beti ere eguneko taberna-zerbitzuarekin batuta.

Establezimenduak eskaintzen duen zerbitzu-motaren araberakoa izango da langile-kopurua ere, noski. Langile gutxien dituen establezimendua bakarrarekin konpontzen da; gehiena dituenak, berriz, 14 langile ditu. Eta muturreko bi kopuru horien erdian dago 5 langileko langa. Langa horrek bereizten ditu herriko tabernen bi erdiak. 1-5 langile dituzte tabernen erdiek eta 6-14 beste erdiek.

Bezeroari arreta ona eskaini	4,91
Giro atsegina	4,83
Komun garbi eta txukunak	4,83
Kalitate-prezio egokia	4,75
Kafe ona	4,75

Gardentasuna	4,58
Itxaroteko denbora	4,42
Bezeroari gomendioak egin	3,67
Jatetxeko karta	3,40
Ardoen karta	3

Etorkizunerako faktore erabakigarriak ostalaritzan

Sektorearen egoera

Ostalaritza-sektoreak bere burua erdibidean ikusten du: ez ondo eta ez gaizki. Batetik bosterako eskala batean 3 eta 3,5 arteko puntuazioa ematen diote bai Lazkaoko ostalaritzaren egoera, bai Goierrikoari. Era berean ostalaritza-eskaintza ere ez dute kinka larrian ikusten, baina ezta esne-mamitan ere. Adierazgarria da, bi kasuetan, egoerarenean nahiz eskaintzarenean, Lazkaokoa Goierrikoaren gainetik ikusten dutela herriko ostalariek.

Nola baloratzen duzu zure sektoreak oro har Lazkaon bizi duen egoera ?	Nola baloratzen duzu zure sektoreak oro har Goierrin bizi duen egoera ?	Nola baloratzen duzu zure sektorearen eskaintza oro har Lazkaon?	Nola baloratzen duzu zure sektorearen eskaintza oro har Goierrin?
3,42	3,25	3,5	3,25

Oharrak:

- Ostalari batzuk kexu dira mahaiengatik ordaintzen duten tasari toldoena eransten zaiolako. Bidegabea irizten diote.
- Eskerrak eman dizkiote EHBilduri berei arreta eskaintzeagatik.
- Kale-garbitzaileek hondakinak biltzen dituztenean ez dutelako birziklatzen kexu dira.
- Auzoren batean ekintza gutxiegi antolatzen duela Udalak irizten diote,

MERKATARITZA:

Merkataritza alorrean sartu ditugu gainerako bietan sailkatu ez ditugun negozio-mota guztiak. Janaria saltzen duten establezimenduak, jantziak saltzen dituztenak, ileapaindegiak, fisioterapia-zentruak, jostailutegiak, igeltseritza... Beraz, atal hau ere oso dela zabala Lazkaon esan behar. Alde horretatik, merkataritzaz eta zerbitzuz oso ondo hornitutako herria daukagula uste dugu.

Merkataritzak, ordea, ez du zentzurik bezerorik ezean, eta, oro har, kexu dira bezerook huts egiten ari garela. Erosketak Interneten eta merkataritza-gune handietan egiteak denda txikiak hustea eta ixtea dakar.

Establezimendu batzuetan salgai-mota bat baino gehiago saltzen dute edo zerbitzu mota bat baino gehiago ematen dute. Hori kontuan hartuta, hona gure herriko merkataritzan gehien errepikatu diren erosgaiak eta zerbitzu-motak: janaria, ogia eta eratorriak, aholkularitza, estetika, jantziak, kirol-elikagaiak, ileapaindegia eta fisioterapia-zentroak.

Establezimendu horietatik zenbatek duten online salmenta ere jakin nahi izan dugu, eta oraindik asko zabaldu ez den bidea dela dirudi. Izan ere, % 15ek bakarrik eskaintzen du Internet bidez erosteko aukera. Hala ere, gehixeago dira, nahiz bide horretatik salmentarik egin ez, webgunea badutenak: % 38,46.

Langile-kopuruari dagokionez, Lazkaoko establezimenduen gehiengo zabala 1 edo bi langilekoa da; % 62, hain zuzen ere. Hori gora badira hiruko, lau, bosteko eta zazpiko establezimenduak ere. Guztira, establezimenduen herena inguru sartzen dira multzo horretan. Azkenik, badira bi establezimendu han lbabe industrialdean: batek 58 langile eta besteak 17 ditu.

Etorkizunerako faktore erabakigarriak

Bezeroari arreta ona eskaini	4,83
Bezeroari gomendioak egin	4,67
Giro atsegina	4,63
Gardentasuna	4,59
Kalitate-prezio egokia	4,59
Ahoz ahoko publizitatea	4,29
Erantzukizun soziala	4,22
Itxaroteko denbora	4,15
Errelebo falta	3,66
Gure neurrikoen konpetentzia	3,61
Handiagoen konpetentzia	3,41
Publizitatea	3,36

Bezeroari arreta ona eskaintzea eta gomendioak egitea geratu dira sailkapenburu. Izan ere, bi ezaugarri horiek dira merkataritza txikiaren ekarpen handienak: tratu guztiz pertsonalizatua, neurria eta zure beharrak ondo ezagututa egiten dizkizutela.

Giro atsegina, kalitate-prezio egokia, ahoz ahoko publizitatea, erantzukizun soziala (izan ere, Korrika dela, ez dakit noren aldeko lasterketa dela...), itxaroteko denbora... Horiek dira bigarren multzo garrantzitsu batean geratu direnak. Itxaroten denbora gehiegi pasatzen dutela herriko dendetan esan izan dute askotan bezeroek, baina ikusten da horren kezka badutela dendariak, eta neurriak hartzeko prest daudela.

Esanguratsua da publizitatea, konpetentzia eta errelebo falta izatea faktore erabakigarrietan garrantzi gutxien ematen zaiona. Guk izan ditugun elkarriketetan, konpetentziak ez hainbeste, baina errelebo faltak bai sortzen duela kezka. Publizitateari hain garrantzi eskasa emateak ere ez gaitu harritzen: bat dator establezimenduetan jaso dugun iritziarekin.

Edozeinetara ere, ez dezagun ahaztu, batetik bosterako eskalan erditik gorako puntuazioa jaso dutela. Sektorearen egoeraz egiten den balorazioa ostalaritzakoaren pare-parekoa da: kezgarria, ez larrialdian, baina ezta oparo ere.

Oharrak:

- Lehiakide handiak izateak prezioetan, batez ere, arazoak sortzen dizkigu.
- Denon egitekoa da merkataritza txikia sustatzea. Enplegua sortzen du, aberastasuna ekartzen du, ekologiari eta bizikidetzari laguntzen dio.
- Herritarrak kontzientziako kanpaina gehiago behar ditugu.
- EH mailako online plataforma bat oso baliagarria litzateke: denda fisikoei ikusgarritasuna emango lieke eta biziraupenean lagunduko luke.
- Hondakinen gaian ez da bidezkoa establezimenduok, mota mota tasa bera ordaintzea.
- Merkatarari eta ostalarien elkarte indartsuagoa egin.
- Bereziki belaunaldi berriak hezten jarri behar ditugu indarrak.